

...eta

# Kitto!

825 zkia.  
2012-XI-16



## *Tarikioren itzala Euskararen Egunean*

1.000  
modelokorik gora

2. batzarreko  
komunikazioa

97€  
iristekorrak

Multiópticas

Bidebarrieta, 2  
Tel: 943 20 05 22  
EIBAR

**MULTIÓPTICAS**  
lehena zerbitzu optikoetan

# Eutsi zure xarmari eta ez estali ahoa

Gure estetikari zuzenean eragiten dioten hortzetako arazo ugari daude.

Eta baita gure autoestimuari eragiten diotenak ere, irribarreak modu garrantzitsuan eragiten duelako gure xarman. Arazo horiek hainbat izan daitezke, hala nola piezak gaizki kokaturik egotea (hortzen arteko tartearak, inklinazioak...) edota hortzen forma eta kolorearen aldaketak. Erakargarritasun fisikoa gure gizartean zein garrantzitsua den kontutan izanik, irribarre polita ez izateak konplexu estetikoak eragin dezake. Ohikoa da beren hortzak ez erakustearren ahoa estali edo irribarrerik egiten ez duen jendea ikustea.

## PORTZELANAZKO KARILLAK

Zeramikazko laminatuak dira eta gure hortzen forma eta kolorea hobetzen dute. Odontologia estetikoan erabiltzen dira, irribarreak konpondu eta pazienteari irribarre perfektua bueltatzeko.

Karillen tratamenduak hartz-estetika konpontzen du hortzari kalterik egin gabe, oso erraz egiten da eta emaitza bikainak ematen ditu, hortzei itxura naturala emanaz. Karillak erretxinazko zementu berezi eta ikusezin batekin itsasten dira hortzetara, eta hortzaren aurreko aldean jartzen dira.

Geroz eta gehiago eskatzen den tratamendua da, aktore, abeslari... askok erabiltzen dute, ezer igarri gabe erakargarritasuna hobetzen duelako.

Tratamendu estetiko bat egin aurretik aho eta hortzen osasuna ondo begiratu behar da, garbiketa, enpasteak eta bestelako tratamenduak eginez.

## KONPOSITE-KARILLAK

Hondatutako irribarre bat erabat aldatzen duen tratamendu estetikoak da.

Enpasteetan erabilitako material bera erabiliz egiten



da, soilik aitzineko hortzetarako erabiltzen dira (erdiko eta aldeetako ebakortzak eta betortzak), eta hortzaren aurreko aldean jartzen dira.

Teknika honen bitartez bizkorrago eta zuzenago jardun ahal izaten dugu saio bakar batean.

Itsasgarri gogor batekin itsasten dira hortzetara, eta pazientearen lehentasunen arabera in situ diseinatu eta modelatu daitezke.

## HORTZ-ZURIKETA

Gure hortzek hainbat arazoirengatik galtzen dute

beren kolore naturala: ohikoena tabakoa erretzea edo kafea, kolazko freskagarriak edo ardoa edatea izaten da, oso kolore fuertea dute-eta; baina hortzen kolorea galtzeko bestelako arrazoirik ere badago: tetratziklinekin (antibiotiko mota bat) tratamendu luzea jasan izatea; hortzen konposizioan arazoak izatea, fluorosia (fluor gehiegi) edo kaltzio falta, adibidez.

Hortz-zuriketarik ohikoena karbono peroxidoa (H<sub>2</sub>O<sub>2</sub>) erabiltzen duen tratamendua da, eta gainera ez da



agresiboa. Osagai hori beroarekin edo argi berezi batekin kontaktuan jartzerakoan, erradikal askeetan banatzen da hortzaren kanpoalde zein barnealdean eraginez, eta esmaltea eta dentina zuritzen dituzte; bi horien arabera izaten da hortzen kolorea.

Hortzen tonua kolore-gida batekin neurtzen da; hortik abiatuta, hortzen kolorea, 2-7 tonu artean jaitsi daiteke, eta horri esker, irribarre horixka edo grisaxka irribarre zuri bihurtzen da.

Hala ere, kasu batzuetan pazientearen hortzek oso orban sakonak izaten dituzte edo kolore horixka bizia. Muturreko kasu horietan karbono peroxidoarekin eginko hortz-zuriketa ez litzateke nahikoa izango hortzei ohiko kolore zuria emateko. Horregatik, paziente horien hortzak zuritzeko aukerarik onena hortz-karillak erabiltzea izango litzateke, portzelanazkoak edo konpositezkoak.

Irribarre perfektua izateko hortz zuri eta distiratsuak izatea ezinbesteko ezaugarria dela kontutan izanik, hortz-zuriketa bihurtu da hortz-estetika tratamenduetan gehien eskatzen denetarikoa.

ORDUTEGIA: *Astelehenetik ostegunera:* 10-14 / 16-20h / *Ostiraletan:* 10-14 / 15-19h

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk - Tfnoa. 943 20 85 52



IRAZABAL  
clínica dental

www.clinicairazabal.com - info@clinicairazabal.com

# ASTEAN ESANAK

"Kontsumitzen dugun janariaren %5 bakarrik ekoizten dugu Euskal Herrian. Nekazal mundua, gainera, indarra galtzen doa eta egunero hiru baserritarrek lagatzen diote nekazaritzan jarduteari"

(PAUL NICHOLSON, BASERRITARRA)

"Ezin da ulertu polioa, elgorria eta errubeola moduko gaitzak, erazteko moduan egonda, zergatik jarraitzen duten munduan. Amerikan txertoarekin guztiz desagertu direnean, European arriskuan jarraitzea"

(CIRO DE QUADROS, SENDAGILEA)

"Gero eta gehiago, ezkerrekoak direla diotenak eskumakoak balira bizi dira; eta eskumakoak direla diotenak ezkerrekoak balira pentsatzen dute. Pentsamendu liberal bakarra gailendu da politikoki zuzena moduan"

(J. IGNACIO MUNILLA, APEZPIKUA)

"Garun femeninoak, fetu garaian, ez du testosteronaren eraginik izaten. Maila hori zenbat eta bajuna izan, kalitate handiagoko harreman sozialak izango ditu bakoitzak: hortik neskak mutilak baino sozialagoak izatea"

(LOUANN BRIZENDINE, PSIKIATRA)

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten eusquera

IZARBERA.- Izerdi asko botatzeko joera daukana. "Berez da izarbera, ez da harritzekua beru honekin arkondaria bustitta eukitzia".

IZAR-GELDI.- Ipar izarra. Erderazko 'estrella polar'. "Itxasuan, izar-geldixak erakusten dau bidia".

IZARDI BATIAN.- Izerditan blai eginda. "Hankiari gora ta behera eragiñaz, izardi batian".

## eskutitzak

### OHARRA

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derrigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luze hori gainditzen duten testuak mozteko esku-bidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu irain-

garririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreo bidali daitzke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com

ERREDAKZIOA

### ERREDAKZIOAREN OHARRA:

Datorren barixakuan -hau da, hilaren 23an- kaleratuko dugun astekarian izango duzue San Andres jaien inguruko informazioa. Eta hurrengo barixakuan -hilaren 30ean-, jaia denez, ez da alerik izango. Horrek ekarriko du, behin abenduan sartuta, hurrengo alea hil horren 5ean kaleratzea (zubiaren aurretik eta eguaztenean). Beraz, informaziorik bidaltzea nahi badiguzue edo zorion-tarteak aprobetxatu, kontuan hartu itzazue bi data horiek: **azaroaren 23an** izango da kalean 826. zenbakia eta **abendua**ren 5ean 827. zenbakia.



**ARGITARATZAILERA:** ...eta kitto! Euskara Elkarteak. **HELBIERA:** Urkizu, 11 - solairuartea. 20600 Eibar  
**TELEFONOAK:** 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.  
**Astekariaren E-MAILak:** erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com /  
publizitatea@etakitto.com **Elkartearen E-MAILak:** elkarteak@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com  
**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:** Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez,  
Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILERA:** Koldo Mitxelena.

**ERREDAKZIO-BURUA:** Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.  
**ARGAZKI ARLOA:** Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.  
**PUBUZITATEA:** Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnua:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Silbia Hernandez  
**BANAKETA-ARDURADUNA:** Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.000 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).  
**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679  
("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



EIBARKO  
UDALA



GIPUZKOAKO  
FORU  
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDETTA)

kutxa gizarte ekintza

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak,  
Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak  
diruz lagundutako aldizkaria

# autuan

## DIPUTAZIÑUAREN BILLERA

Martin Garitano diputatu nagusixarekin eta Foru Aldundiko ordezkariekin billerak egitten dihardue herririk herri, 2012ko balantzia aurkeztu eta 2013rako presupuestuak ezagutzera emoteko. Eibarko billeria astelehenian, hillaren 19xan izango da, Portalean 19.00etan.



## SORTU


Azarua eta otsailla bittartian, hillian behiñ alkartuko dira Sorturen nundik norakuak erabagitzeko. Billerak ezker abertzaliaren proiektuarekin bat egitten dabene guztieri zabalik egongo dira eta lehelengua azaruaren 24an (zapatua) izango da, 10.00etan Portalean (ikastaro gelan).

## 1947-XAN JAIXOTAKUAK

Urte horretan jaixotakuak azaruaren 24an egingo dabe bazkari-xa, Unzaga Plaza hotelian (argazkixa 13.00etan Untzagan). Juan nahi dabenak 65 euro sartu biharko dittu Kutxan, 2101 0035 150128373362.

## Bildu eta Aralar ospitalarekin arduratuta


Bildu eta Aralarrek aurreko barixakuan emondako prentsaurrekuak, ospitala jasotzeko lurraren inguruko kezka azaldu zittuen: "Etorkizuneko Eusko Jaularitzak proiektua ez gauzatzia erabagitzen badau, gure udaleko inbersiño ahalmena asko murriziaz gaiñ, oso parking garesti bat eukiko genduke. Bestalde, EAJri aurrekanpaiñan esandakuarekin koherentia izan eta ospitala kokatzeko alternatibak aztertze esan nahi detsagu". Lurra erositta egon arren, ospitalaren proiektuak aurrera egingo ete dabene ez dabe argi ikusten: "EAJtik oso gertu dagan Noticias taldean irakorri dogunez, behin hauteskundeak egin eta gero, Eusko Jaularitzara aillegatzeko aukera asko dittuan alderdixak proiektua ezbaian jartzen dau



eta Lópezen gobernuak azken momentuan abiarazitako proiektu hau atzera botatzeko bidia leuntzen dihardu".

Proiektua bertan behera geratu ezker, "lurra udalarena izatera" pasauko dala eta "Eusko Jaularitzari erantzunkizunik eskatzerik ez dala izango" argi laga nahi dabe. Horrekin batera, "orubearen salerosketari esker Eibar Berrik 1'6 millioi euroko irabazixak izan zittuala" gogora ekarri eben. Eta horrekin batera, lurrari kutsaduria ez kentzeko erabagixak "zentsurik ez dakala" azpimarratu eben.

## Gaztañerre jai giruan emon eben askok



Lagunartian afaltzen ospatu eben askok Gaztañerre astelehenian. AEK euskaltegiuak, azken urtiotako martxiari jarraituta, trikitalarixak alaittutako kalejiria egiñ eben Paloma tabernan hasitta. Aurreko asteburuan, barriz, As Burgas Galiziako Etxekuak Magosto jaixa ospatu eben Urkizuko parkian.

**Funeuskadi Eibar**  
SERVICIOS FUNERARIOS

Bellatokia Funeuskadi Eibar: Otopia, 27      Bulgosa: Eizabameta, 6

**24 orduko zerbitzu iraunkorra**

☎ 943 82 15 39 - www.funeuskadi.com

• Eibar • Donostia • Bilbo • Barakaldo • Leioa • Getxo • Sestao • Portugalete • Santurtzi • Galdakao • Sopu • Espinosa de los Monteros

**Helbidea**  
URKIZU PASEALEKUA, 13  
Orbeako dorreetako  
1. solairua

**CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA**

☎ 943 12 02 00    Fax: 943 12 02 04

1 Kardiologia	10 Barne Medikuntza
2 Zirugia	11 Radiologia
3 Dermatologia	12 Urologia
4 Dietetika eta Nutrizioa	13 Traumatologia
5 Análisi Klinikoak	14 Koloproktologia
6 Ortodontzia	15 Erizaintza
7 Otorrinolaringologia	16 Zoru pelbikoaren errehabilitazioa
8 Pediatria	17 Foto-depilazio Unitatea
9 Psikiatria	

## Oihartzun eskasa izan zuen 14ko grebak

CCOO eta UGTk Gipuzkuan daken ordezkariak eragiña izan dau astegun buruzuri baten antzerako itxuria izan zeben probintziako herri, hiri eta industrialdietan. Sindikatu horrek bihargiñen %30 ordezkatzan dabe, baiña haraiñegungo greban gitxiagok hartu eben parte eta piketerik be ez zan herrixan ikusi. Izaera europarreko grebak, bestalde, indar gehixago izan eban estatuan eta, baitta, gertuago, Nafarroaren kasuan, horko hegoaldian babes nahiko izan dabelako. CNT-k ELA eta LAB salatu zittuen grebia ez ba-bestiarren eta Unai Sordo CCOOko idazkari



nagusixak esan zebanez, "Europa guztia kalian daguan bittartian, beste sindikatu batzuk zilborrari begira dagoz". Bilbon CCOO, UGT eta LSBk egiñ zeben manifestaziñuan 10.000 lagun inguru alkartu ziran.



Iker Aranberri

## Izena duen guztia da

**Euskal esamoldea duze** lerroburukoa. Euskal kondairen eta mitologiaren esparruan erabili izan da izaki miragarriak, izena duten neurrian, existitzen direla argudiatzeko. Izena badu existitzen delako da. Norbaitek norbaiti-zerbaiti izena jartzen dionean, izaera ematen dio; eta izaerak izana. Esamoldea gaur egunera ekarriko dut: zaborren eta hondakinen esparrura, hain juxtu. Izan ere, etxeko zaborra edukiontzira botatzen dugunean badirudi ariketa katartikoa burutzen dihardugula. Purifikazioa izan ohi da etxean dugun zaborra botatzea, liberazioa. Badirudi edukiontziko zulotik botatzean, nolabaiteko linbo majiko batera doala eta desagertu egiten dela. Gure begibistatik bai desagertzen da, baina zaborrak existitzen jarraitzen du, guk ikusi ez arren. Eta guk sortutakoa da, gurea da. Lotura sikologiko hori haustea lortzen dugu, baina apurketa faltsua da. Eta arriskutsua da, faltsua dela konturatzen ez garenean. Badirudi purifikazio ariketa horrek gure bekatuak automatikoki garbitzen dituela, tabula rasa gisa, eta horrek galbidera eraman gaitzake. Zergatik? Ez garelako gure jokabideen ondorioen jakitun. Hondakinak eta zaborrak irudika ezinezko arazo erraldoi bilaka daitezke etorkizunean, arazoaren kudeaketa egokia egiten ez badugu. Ez dakit zein den kudeaketa eredu hori, baina uste dut gizartea erabat sentsibilizatzeko eta kontzientziatzeko oraindik bide luzea egin beharra dagoela. Eta, bitartean, agian ideia ona dela gizarteari ohitura jakin batzuk barnertazera behartzea edo derrigortzea.

## Eibartarra hil da Barakaldon etxetik botata

**Aurreko barixakuan bere buruaz beste** egiñ eban 53 urteko Amaia Egaña eibartarrak Barakaldon, bere etxetik kaleratzeko agindua betetzera zoiazenian. Jose Manuel Asensio Bizkaiko herri horretako ziñegotziza izandakuaren emaztia zan Amaia eta bera be Eibarren ziñegotzi izandakua,



PSE-EEko zerrendan, 1983tik 1987ra bittartian. Ramon Egaña Eibarko militante sozialista historikuaren alabia zan Amaia eta, jakiñ izan danez, Stop Desahucios plataformiari laguntasuna eskatu zetsan, baiña ez ei eban esan barixakuan bertan etxetik etarako ebenik. Eibarko Sozialistak barixakuan bertan agertu eban heriotza honen inguruko atsekabia eta, horrekin batera, etxe-kaleratzen aurreko neurrixak hartzeko deia egiñ eban.

## Abadiñon lan istripuan hildako bihargiña Eibarkua zan

**Martitzenian Abadiñoko Lebario auzuan,** Talleres Unamunzaga enpresan lan istripuan hil zan 54 urteko bihargiña, Jon Barandika Goiti, Eibarkua zan. Badirudi trokel bateko pieza batek jo eta kolpiak eraginda hil zala gizona, baiña oindiok Osalanen behin-betiko txostenak hori baieztatzeko zain dagoz. SOS Deiak-ek abisua 08.38an jaso eban, baiña larrialdixeta-



rako zerbitzuak ailegau orduko gizona hillik eguan. Heriotza salatzeo alkarretaraziak egin dira, bestiak beste atzo arratsaldian Eibarren.

## Dendarixen txiki-parka atzera be martxan

**Aurreko urtian izandako arrakastia ikusitta,** aurtben be 2 eta 5 urte bittarteko umiendako txiki-parka zabalduko dabe Eibar Merkataritza Gune



Irekiko dendarixak. Ugan gimnasixuan (Calbetón kalia) egongo da martxa umiendako parkia, gaur arratsaldian bertan hasitta (17.00etatik 20.30xetara). Bixar goizez (11.00etatik 14.00etara) eta arratsaldez (17.00etatik 20.30xetara) egongo da zabalik eta azaruan eta abenduan barixaku eta zapatuetan eskinduko dabe umiak bertara eruateko aukeria. EMGIko dendetan erosketak egittian, gastautako 20 euro baktzeko txiki-parkerako bonuak eskuratuko dittue erosliak.

asteko


22

datua

millioi euroko inbersiñua egin dabe atzo inaugurau eben IK4-Teknikerrek instalaziño barrixetan. Eraikiñak 28.000 metro karratu dittu eta bertan 260 ikertzailek egingo dabe biharra. Guria da EAEn I+G+b arluan gehixen inbertitzen daben eskualdia.

## Jaime Barriuso omenduko dabe Krabeliñen

Aurreko barixakuan hasi ziran Krabelin jate-txiak antolatutako 9. Maridaje Jardunaldiak, Vintae arandegiko ardauekin. Azaroko beste barixakuetan be jarraipena izango dabe ehiza eta ardauak bat egittekofari berezi hónek eta izena emoteko 943202727 telefono zenbakira deittu bihar da. Prezioa 56 eurokoa (BEZ barne) da (San Andres egunekoak 48 euro balixoko dittu). Preziuaren barruan Arratera jua eta Eibarrera bueltatzeko autobusa sartzen da (urteeria Ego-Gaiñetik 21.00etan eta bueltakua 01.30etan).



Gaurko afarixa Cune arandengikuekin (Maria Larrea enologuak gidatuta) izango da; hiruugarrena azaruaren 23an, Viñas Valsanzo arandegixarekin (Javier Rodríguez enologuak gidatuta); eta San Andres eguneko afarirako (azaruaren 30ian)

Bodegas Campillo aukeratu dabe (gidaritza Alberto Roth merkataritza zuzendarixak egingo dau). Azken horretan, gaiñera, Krabeliñeko ugazabak, Udalarekin batera, oin dala gitxi hil dan Jaime Barriusori omenaldixa egingo detse, grabadore-bolia emonda.

## Presueri laguntzeko erakusketa-subastia

Datorren astian, azaruak 22xan, 19.00etan inaugurauko dabe Karrika tabernan Tattoo Circus izenburuko erakusketia. Abendura bittartian egongo da martxan, baiña erakusketa berezixa izango da: hillebete osuan ikusgai dagauguzen laneri preziaua ipintzeko aukeria eukiko dau jendiak eta abenduaren 22xan egingo dan azken subastan erabagigo dabe zeñiek eruango daben lan bakotxa etxera. Bertan batzia lortzen daben dirua, bestalde, presueri laguntzeko erabiliko dabe.



## Gurasuak euskeriarekiko motibatzen

Aurreko hillian hasittako bidari jarraituta, ...eta kitto! Euskara Elkartek euskeriaren erabilleria sustatzeko asmurekin eguaztenian gurasuendako pentsautako hitzaldixa emon eban Portalean. "Euskararekiko motibazioa eta jarrerak" izenburuko hitzaldixan guraso askoren buruan bueltakua dabizen galdereri erantzuten ahaleginduzan Ainara Labado ...eta kitto!-ko normalizaziño arloko arduraduna.





**Etorri eta parte hartu!**

Martin Santano diputatu nagusiarekin eta Gipuzkoako Foru Ahtundiko ordezkarekin batera.

**Azaroak 19 EIBAR**  
Portalea **19:00**

Gaiak:

**2012 balantzea**

**2013 aurrekontuak**








# TEEN AJEAK

**Aurreko zapatuan "Get down to the soul room 2" jaialdia hartu zuen Koskor tabernak. Bertan musika ipintzen jardun zuten Farik (Kogollo Party Krew), Beatok (Bar Akaldo System) eta Gorkuk berak (Funk Off!), Xane abeslariaren zuzeneko ahotsarekin biribildu zuten saioan. Jaia antolatu zuen Funk Off! kolektiboa ezagutu nahian jo dugu Gorka Telleria "Gorku"-rengana.**

**- Zer moduz zapatuko jaietan?**

Bikain. Jende mordo eta etorri zen eta gau osoa bertan eman zuten, dantzan eta primeran pasatzen. Aurretik Lurpen behin eta Koskorren beste behin antolatu ditugu horrelako jaiak eta denetan jende asko batu da: Koskorreko beheko aldea bete-beteta egon zen zapatuan ere.

**- Nola animatu zineten horrelako jaiak antolatzen eta Funk Off! sortzen?**

Nire moduan musika ipintzen jarduten zuten inguruko lagun batzuekin elkartu eta horrela jaio zen Funk Off! taldea. Lantzean behin batu egiten gara eta gauzak nola antolatu pentsatzen dugu, ideiak sortzen joaten dira... Horrelako jaiak antolatzeko aukera ikusi genuen eta aurrera!

**- Beraz, zuen aisialdian egiten dituzue horrelakoak...**

Bai. Gainera, taldean, musika ipintzen dugunez gain, beste gauza batzuk egiten dituzten beste hainbat lagun dade: argazkilariak, logistikaz arduratzen direnak, diseinu grafikoan jarduten dutenak...

**- Nolakoak da zuek antolatutako jaiak? Zertan da berezia?**

Normalean orain tabernetan entzuten ez den musika ipintzen dugu; hau da, orain dela 5-10 urte nahiko ohikoa eta ezaguna zen "house" estiloko musika batipat. Musika elek-


tronikoa da, baina ez behin eta berriz buruan kolpatzen dizuna, bestelakoa baino. Musika berezia ipintzeaz gain, jaira doan jendearekin "photocall"-a egiten dugu, kartelen diseinua, "flyer" itxurako kartelak... Eta ipintzen dugun musikarekin grabatutako CD-ak jende artean banatzen ditugu.

**- Musika horrek jarraitzaile asko dauzka gure inguruan?**

Oro har jendeari asko gustatzen zaio. 30 urteen bueltan gabiltzanak orain urte batzuk, gauz irtetzen hasi ginenean, edozein tabernetan aurkitzen genituen abestiak dira, oso "funky"-ak eta, horregatik, jendeak erraz dantzan egiten du horiek entzunda. Gaur egun beste batzuk ipini dira modan eta oso zaila da horrelako abestiak entzutea, ez bada horrelako jai batean edo.

**- Aurrerantzean horrelakoak antolatzen jarraitzeko asmorik baduzue?**

Gustatuko litzaiguke, jakina. Dena dela, ez dugu nahi jaialdiak oso maiz egitea, jendea ez aspertzeko eta egiten dugunean gogo gehiagorekin hartzeko. Aurrera begira, eta Udala laguntzeko prest egongo balitz, gauzak egiten jarraitzea gustatuko litzaiguke. Izan ere, horrelako jaiak antolatzeko ez da diru askorik behar eta gu antolaketan-eta beharrean jarduteko prest gaude.



Gorka Telleria 'Gorku'  
(FUNK OFF!-EKO PARTAIDEA)

**"Orain 10 urte entzuten zen musika gustatzen zaigu"**

**Iradi**  
LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

**Radio Eibar**  
CADENA  
**SER**  
104,0 FM

**publi resa**

- Pin-ak
- Metxeroak
- Kamisetak
- Boligrafoak...

PUBLIZITATE ARLOKO eta ENPRESETAKO OPARIAK  
**Armagin 3 - behea**

☎ eta faxa: 943 70 14 97 Publi.resa@euskalnet.net

## HIRU ARAZO ETA ABOKATUAK

Krisiak eta Espainiako gobernuak krisiari erantzuteko hartzen diharduen neurriek herritarren duten eraginak ekarri dute abokatu kolektiboak pillean dauden gaietara erantzun beharra izatea. Gizartean gertatzen diharduten arazoak eta beraien inguruan sortzen ari den presio sozialak, eragin dute justiziak oro har eta abokatu kolektiboak bereziki aspaldiko partean izan ez duten protagonismoa eskatzea. Azken hilabeteetan abokatu kolektiboak hiru gaietara buruzko iritzia emateko beharra somatu du:

**TASA JUDIZIALAK:** Espainiako parlamentuan Auzitegi Tasen Legea ari da tramitatzen, Kongresuko tramitea pasa du, orain Senatuan dago. Aurrera ateratzen bada, herritarrek auzitegiaren apelaioak egiteko ordaindu behar dituzten tasak nabarmen igoko dira. 350 eta 1000 euroen arteko tasak aurreikusten dira. Abokatuak aurka agertu dira, bi mailatako herritarrek sor ditzakelako: apelazioak ordain ditzaketenak, eta lehen instantziako epaiarekin konformatu beharko dutenak, gora jotzeko baliabide nahiko ez edukitzeagatik.

**DOANEKO JUSTIZIA:** Eusko Jaurlaritzak arautu berri du Dekretua, baliabide nahiko ez duten herritarrek auzitegiara jotzeko abokatuak dohainik izan ditzaten. EAEko Abokatu Kolegioak Dekretu honen aurka agertu dira, eta auzitegiaren errekurtoa jarri diote, argudiatuz, besteak beste, dohaineko justizia eskuratu nahi duenari burokrasiako traba asko ipintzen zaizkioala.

**ETXE KALERATZEAK:** hau da une honetan arazorik latzena, jende kopuru handi bat etxea galtzeko egoera larrian jartzen duelako. Arazo honetan, azken urteotan honako paisaiaren ikusle eta jakitun izan gara:

– Urteak generamatzen komentatzen gure kolektiboan, maila pribatuan, banku eta aurrezki kutxekin sinatzen diren mailegu hipotekario eskriturak

abuso bat direla. Entitate erakundeek eskritura horietan herritar pribatuei ezartzen dizkieten baldintzak oso gogorrak dira, batez ere berandutza-interesei dagokienean. Europar Batasuneko Justizia Auzitegiko abokatuak esan du orain txosten batean kontratu hauek ez dutela Europako lege-dia betetzen kontsumitzaileen babesari dagokionean.


– Bestalde, ezagutzen dugu baita ere Legeak mailegu hipotekario bat ordaindu ez, eta aplikatzen duen bide estua, zordunari ematen dion bide bakarra zorra ordaintzekoa izanik, bestelako argudiorik onartu gabe, etxeaz desjabetzeraino.

– Ikusi dugu herritarrek zein errez eta arinki, eta entitateek zein eskuzabal eta baita ere arinki eskaintzen zituzten mailegu bat beste baten gainean. Ez zegoen orduan (eta ez dago gaur egun) gainzorpetzeari buruzko inolako legerik.

Orain gizarteak arazo honentzako konponbidea eskatzen du, presio sozialaren parte garrantzitsu direla epaile eta abokatuak. Etxegabetzearen arazoaren konponbidea lege araututa etorri behar da, ezin da izan, orain arte bezala, gomendio bat, nahi duten entitateek nahi badute aplikatzeko formula bat. Legeak ezarri beharko du zein kasu larrietan, (eta arautu zeintzuk diren kasu larriak) aplikatuko zaio etenenaldi bat mailegu hipotekarioaren ordaintzari, eta zorra kitatzeko etxea emateko ahalbidea legean sartu. Horrelako zerbait egiten ez bada, jendeak bizitokia galtzen jarraituko du.



*Elena Laka*  
abokatua



Zuzenbideari buruzko edozein zalantza izanez gero, idatzi erredakzioa@etakitto.com helbidera; hurrengo alean zalantza horiek azaltzen saiatuko gara.



## Eibar Eskubaloia garaile Salamancan



Infantil mailakoak Tolosan txapeldun.

Merezitako garaipena eskuratu zuten eibartarrek Salamancan bertako Ecubus-en aurrean (30-33) eta sailkapeneko 4. postuan kokatu dira. Asteburu honetan ere kanpoan jokatu beharko dute Somos Eibar Eskubaloioek: bihar, 17.30etan, Zizur Nagusian San Antonio - Ardoiri egingo diote aurre.

### Jokalari berrien bila

5. eta 6. mailako neska-mutilendako deia egin du Eibar Eskubaloiak datorren domekarako. Eskubaloian egin nahi dutenek Ipurua kiroldegira joan daitezke probak egiteko. Kirol jantziekin joan behar dira: 09.00etan neskek eta 10.00etan mutilak.

## Ruibalek etxean galdu zuen aspaldiko partez

61-69 irabazi zuten Errenteriako Oiarsokoen Ipuruan jokaturako partiduan. Ruibal etxeko taldeak urte eta erdi zeraman Ipuruan neurketarik galdu gabe, baina multzoko liderrak hobeto jokatu zuen oraingoan. Akatsa tiro libreetan izan zuten eibartarrek, erdian baino gehiagotan kale eginez. **Katu-Kale**, bestalde, 61-54 nagusitu zitzaion Donostiako Internacional-Mons taldeari, batez ere Arakistainek eta Horcajadak egindako lanari esker.



## berriak


### EIBAR - PEÑA SPORT

Domekan jokatu du Eibar KEk ligako 13. jardunaldiko neurketa. Oraingoan Peña Sport-eko nafarrak izango dira Ipuruan, 17.00etatik aurrera. Garitanoren mutilak sailkapeneko 2. postuan daude, Alavésengandik hiru puntura eta 3.ari bost puntuko alde kentzen diola.

### ANETXE - BATHCO

Eibar Hierros Anetxe errugbi taldeak lidergoari eusteko asmoz jokatu du Bathco Independiente bihar Unben, 17.00etan hasita. Durangon 6-23 irabazi eta gero, eibartarrek lidergoari eusten diote, baina aurkariak Bartzelonari irabazi zieten aurrekoan.

Toribio Etxebarria



125. urteurrena

# Lehiaketa

## 2. asteko galderak

Toribioen mundukoaren hiru gai nagusiak (filosofia, sustatutakoa eta erlijioa) Espirituaren duen sakonera ikusi da:

- La Liga de Naciones y el problema vasco.
- Metafisica a tircola
- Tres enayos: Del trabajo, la subditura y la oracion

AIZKORATI berba zeri berberakir daten?

- Azokide
- Azokora
- Azto

Toribio Etxebarria Centro Obreroko liburubogira jotzen zen irakurketa, eta 2. urteko darsora tartean liburubogiko ia liburua gutxiak irakurri zituen. Norena zen Centro Obreroko egotza?

- Komunistena
- Sozialistena
- Nazionalistena

Izen-abizenak: .....

Telef: ..... e-maila: .....

Erantzunak jasotzeko azken eguna: **azaroak 22**

Juan San Martin liburutegia



Alejandro Altuna

## Estresa gizartean

**Gure gizartean gero** eta estres handiagorekin bizi gara; deskonektatzen ikasten ez badugu, kalteak handiak izan daitezke. Estresak bizitzako erronkei egokitzeko balio du, baina askotan gaintitu egiten gaitu eta kaltegarria bihurtu daiteke. Ezinegon hori nondik datorrigun baloratzerakoan faktore asko daude: *Gizarte teknokratikoa*: indibidualista, kompetitibitiboa, enpatiarik gabea, aldaketa azkarrekoa, estimulo bisual eta auditibo larrikoa, urbanismo itogarrikoa... *Faktore sozio-laboralak*: bazterketa soziala, langabezia, balore kontsumisten indartzea...

*Beste agente estresanteak*: uhin elektromagnetioak (telebista, wifia, mobila...), kutxadura akustikoa, alkohola, drogak, argi naturalaren falta...

Gure bizi-kalitatean eta osasunean estresak duen eragina hiru motakoa da:

1) Ondorio fisikoak: Kardio-baskularrak: takikardiak, hipertentsioa, infartoak, iktusak... Liseri-aparatoan: ultzerak, gastritisak...

Arnas-aparatuak: arnas-estua, hiperbentilazioa. Estresak gure sistema immunologikoa ahultzen du, minbiziak eta gaixotasunak izateko arriskuak areagotuz.

2) Ondorio psikologikoak: gure kanpoko gauzen artean eta gure baitarekiko artean deskonexioa gertatzen da eta, horren ondorioz, atentzio falta, depresioa, antsietatea... sortzen dira. Estresak eragindako jarrera konpulsiboek obesitatea edo bulimia sortu dezakete.


3) Ondorio sozialak: estresari adaptazio faltak bazterketa sozialean eragin handia du. Askok lan gabe geratzen dira edo gaixo kronikoak bihurtu (fibromialgia, depresioa...).

## Ipuruako gimnasten talde bi Euskalgym podiumean

**Biek ere brontzezko domina eskuratu zuten** asteburuan jokaturako Euskalgym-ean. 1. mailako taldeak mazekin eskuratu zuen hirugarren postua, Londresko joko olinpikoetan parte hartu zuten goi mailako gimnastekin partekatuta zuten tapiza gainean. Ibaibarriaga, Garmundi, Yarza, Blanco, Hernández, Holgado eta Bediak mailari eusteko daramaten borroka horri jarraitzen diote alebin oinarri mailako Txurruka, Varela, Miguel, Arguiz eta



Eskisabelek eta, bere debutean, ondo prestatuta daudela erakutsi zuten hilaren 24an eta 25ean Zaragozan jokaturako diren maila horretako Espainiako txapelketetarako.



## Klubun Artekoaren finalerdia Hernanin eibartarrentzat

Hil ala biziko partidua jokaturako dute asteburuan Hernanin Klub Deportiboko Unamunzagak eta Bengoetxeak. Partidu bakarrera jokatu beharreko Klubun Arteko txapelketaren finalerdi horretan Hernaniko frontoia izango dute lekuko, bertako ordezkariak euren multzoko onenak izan zirelako eibartarrak euren bigarren sailkatu ziren bitartean. Horko irabazleei Zumaia eta Azkoitiko ordezkarien artean jokaturako den finalerdietako irabazleak egingo die aurre finalean. Gaur, bestalde, Astelenak Narbaiza eibartararen eta Amezketako ordezkariaren arteko neurketa hartuko du.

## San Andres judo torneoaren 39. edizioa

**400 bat judoka izango dira** Ipurua kiroldegian domekan jokaturako den San Andres judo torneoaren edizioan. Euskal Herriko etorritako judokekin batera, Errioxa, Burgos eta Frantziako neska-mutilak ere izango dira, infantil, alebin eta benjamin mailatan lehiatuko direnak. Ligak antolatzen goizeko 09.30etan hasiko dira eta handik ordu erdira lehiaketa. Torneoari "Kirola krisiaren aurka" izena ipini diote eta, izena emateko kuota moduan, produktu ez gal korren kiloa ezarri dute. Berezia benetan.



Erregeetako trofeoan parte hartu zuten Kalamuakoak.

## PUNTAKO TEKNOLOGIA

APUNTIA

*FIFAk teknologia erabiliko duela esan du "gol marrako jokaldi zalantzagarrietan". Hau da, gol mamuak kasuan. Ez torneo guztietan gainera: Klubun Mundialean, datorren urteko Konfederazioen Kopan eta 2014ko Mundialean bakarrik. Ez du esaten teknologia berri erabiliko dituenik, ez, baizik eta teknologia. Foball munduan hain geldo erabiltzen dute, ordurako teknologia hori berria ere ez dela. Gol marrara mugatzea dena bada ere adierazgarria. Zergatik horrelako dibortzioa foball burokraten eta hobekuntza teknologikoen artean? Errugbian, esaterako, berehala onartzen dituzte, inolako arazo barik. Hor ere epailea da agente nagusia. Baina Jaungoikoa ez denez, batzuetan zalantzak ditu. Jokaldia geratu, laguntzaileei galdetu eta, monitoreetan jokaldia ikusita, erabakitzen du. Segundo horietan zaletuek ere ixilean itxaroten dute erabakia, epaileak eskua altxatu arte. Rugbilariek ere berehala onartzen dute, kexatu barik. Foballariak nahiago izaten dute kexatzen hasi, poligoneroen antzera.*

## 106 eibartar domekako Behobia-Donostian

Domeka goizean jokaturako Behobia-Donostia maratoi erdian gure herriko 106 atletek amaitu zuten proba, eurretatik 17 emakumezkoak. Asier Cuevas izan zen, beste behin, gure ordezkari onena: 8. postuan amaitu zuen, eta ia 20 kilometroko distantzia (19.955 metro) betetzeko ordubete eta lau minutu behar izan zituen. Emakumezkoetan Aitziber Urkiola izan zen lehenengo eibartarra (ordubete eta 26 minutu). Euriak eta haizeak ez zien larregi lagundu parte-hartzaileei 48. edizio honetan; baina, hala ere, 21.472 korrikalarik amaitu zuten lasterketa. Hona hemen parte hartu zutenen eibartarren sailkapena eta egindako denbora:



Eibarko korrikalarien taldea Behobiara joateko autobusa hartu aurretik. A. BUENDIA

8	Asier Cuevas	1h04'00"	5.585	Ion Moreno	1h31'02"	10.362	Fco. Compostizo	1h39'06"	16.472	Mikel Larrañaga	1h50'47"
217	Josu Azkonaga	1h12'51"	5.806	Jesus Del Ejido	1h31'29"	11.185	Sergio Alegre	1h40'27"	16.614	Luis De Blas	1h51'14"
561	Igor Gallastegi	1h16'36"	5.811	Igor Guenaga	1h31'30"	11.338	Jon Etxabe	1h40'44"	16.630	Ainhoa San Martin	1h51'16"
572	Igor Fernandez	1h16'40"	6.033	Juan Carlos Adot	1h31'58"	11.351	Ernesto Etxabe	1h40'45"	16.664	Iñigo Astigarraga	1h51'21"
609	Eneko Laskurain	1h16'54"	6.098	Jose Ignacio Telleria	1h32'04"	11.482	Paul Unamuno	1h40'59"	16.679	Adrian Galan	1h51'23"
777	Jon Cid	1h18'01"	6.457	Bittor Ugarteburu	1h32'43"	11.978	Oier Berrizbeitia	1h41'50"	16.717	Nerea Oteiza	1h51'29"
838	Haritz Uribe	1h18'20"	6.995	Eduardo Uribe	1h33'45"	12.182	Ricardo Zabala	1h42'10"	16.753	Unai Artebe	1h51'35"
893	Iñaki Aldai	1h18'39"	6.997	Miren Gallastegi	1h33'45"	12.229	Aitor Zubizarreta	1h42'15"	17.098	Juan Luis Iriondo	1h52'30"
947	Igor Errasti	1h18'46"	7.269	Oscar Santiago	1h34'15"	12.461	Jesus Fco. Pagei	1h42'43"	17.358	Igor Etxeberria	1h53'18"
1.020	Iñigo Trokaola	1h19'21"	7.542	Aitor Oiarzabal	1h34'44"	12.559	Martin Jose Bono	1h42'54"	17.365	Jorge Perez	1h53'19"
1.052	Unai Mutiba	1h19'30"	7.850	Andoni Izagirre	1h35'14"	12.802	Eneko Urain	1h43'19"	17.384	Carlos Balseiro	1h53'22"
1.810	Juanjo Romero	1h22'35"	7.967	Ibon Arizaga	1h35'27"	12.840	Oskar Alberdi	1h43'22"	18.134	Eugenio Morillo	1h55'24"
2.066	Andoni Mayo	1h23'24"	8.036	Ibon Ramirez	1h35'34"	13.242	Oihana Aristondo	1h44'08"	18.137	Ander Berrizbeitia	1h55'24"
2.071	Aitor Bolinaga	1h23'25"	8.042	Ibon Martin	1h35'35"	13.414	Iñaki Ferreiro	1h44'24"	18.868	Iker Aristondo	1h57'57"
2.313	Mikel Sologaitua	1h24'05"	8.049	Asier L. de Viñaspre	1h35'35"	13.898	Asier Silva	1h45'20"	18.886	Natalia Atxa	1h58'02"
2.349	Xabier Arrieta	1h24'11"	8.061	Igor Marquinez	1h35'36"	13.920	Adrian Del Nozal	1h45'22"	19.104	Iñigo Otxandiano	1h58'49"
2.352	Enrique Guruzeta	1h24'12"	8.283	J. Antonio Cañaveras	1h35'57"	14.321	Ion Zubiate	1h46'11"	19.107	Mikel Lizarralde	1h58'50"
3.052	Aitziber Urkiola	1h26'01"	8.292	Ana Ramirez	1h35'58"	14.692	Naiara Cid	1h46'55"	19.329	Maria Padilla	1h59'51"
3.226	Armando Azkonaga	1h26'27"	8.356	Alberto S. de Viteri	1h36'06"	14.761	Vicente Alija	1h47'03"	20.464	Yago Del Campo	2h07'22"
3.375	Ivan Arriola	1h26'49"	8.358	Alexander Telleria	1h36'06"	14.769	Jaione Ganzarain	1h47'03"	20.473	Igor Belda	2h07'25"
3.752	Igor Gomez	1h27'35"	8.418	Kike Vila	1h36'13"	14.772	Josu Torrealdei	1h47'03"	20.476	Oihane Gardoki	2h07'27"
4.008	Xabi Etxaniz	1h28'02"	8.641	Tomas Axpe	1h36'32"	15.764	Iakobe Olaeta	1h49'09"	20.531	Jon Illarramendi	2h07'55"
4.088	Daniel Iglesias	1h28'12"	9.260	Jon Mikel Mujika	1h37'26"	15.980	Mikel D. de Corcuera	1h49'41"	20.533	Kristina Zabala	2h07'56"
4.138	Pablo Diaz	1h28'18"	9.326	Eider Mujika	1h37'32"	16.028	Lourdes Iriarte	1h49'46"	20.534	Nerea Beitia	2h07'56"
4.220	Aitor Muguruza	1h28'28"	9.345	Iban Tueros	1h37'33"	16.334	Luis Etxeberria	1h50'29"	20.724	Maialen Araolaza	2h09'43"
4.866	Imanol Abad	1h29'38"	9.546	Ibon Romero	1h37'48"	16.353	Juan Galarza	1h50'31"			
4.943	Josu Guridi	1h29'46"	9.688	Eneko Ezaguirre	1h38'00"	16.438	Juan Irigoien	1h50'43"			

### berriro ere Eibarren



“Sentitu, pentsatu, ekin!” lan berriarekin

abenduak 1  
ZAPATUA  
16.30 eta 19.00

abenduak 2  
DOMEKA  
16.00 eta 18.30

SARRERAK SALGAI (7'00 euro)

e&m argazkidenda, El Tío Palancas eta Gozoki-n

**EGOITZA NAGUSIA**  
Bilberrizte 20 - beheko eskuma

**MUGICA FUNERARIA MUGICA**

Tanatorio Crematorio del  
Bajo y Alto Deba

Tanatorio eta Erusketak labar

Egokien (Signo poligonal)

Artikular, metal eta osaguri enesi zatiak

Koak - Estak - Utzietako estak

Estal Hiri osko ospitaleen hortes zailegi

Nazio eta Nazioarteko itzazkoak

**Mugica Ehorzketa**  
Enpresak 18.000

TELEFONOA (34 GRBU)  
**943 201 951**

# GREMIOEN



## ANTENAK

**BALATZ** S.L.  
Instalakuntzak eta konponketak  
antena - telebista  
Bidebarrieta, 37 Tfnoa. 943 20 05 08  
balatz@euskalnet.net Faxa. 943 20 04 94

## ELEKTRIZITATEA

Tfnoa. 943-530356  
Mobila 688-674242  
Barrena, 21 - 3. A  
**ALBERTO ELEKTRIZITATEA**  
ALBERTO DASILVA FIDALGO  
DASILVAALBERTO@HOTMAIL.ES  
**INSTALAZIOAK ETA  
MANTENIMENDUA**

## GARBIKETAK

**Limpieza  
Multiservicio  
Eibar**  
Superficie  
mota guztietako  
garbiketa eta  
mantenimendu zerbitzua  
Tfnoa. 943 254 615  
Mobila 688 609 171 Barrena, 21 - 1. F

Ego Gain z/g  
Tfnoa. 943 12 73 50  
Faxa. 943 20 73 60  
www.trinmer.com  
**trinmer**  
**TELEKOMUNIKAZIOAN  
PROFESIONALAK**

**ELECTRICIDAD  
CUADRA EC**  
SERVICIOS DE ELECTRICIDAD  
TEL: 943 70 08 95  
FAX: 943 82 00 27  
www.electricidadguria.com

**TREJO  
GARBIKETAK S.L.**  
Tel: 943-752557  
Faxa: 943-752556  
16 Postakutxatila - Soraluze  
*Garbiketa eta  
mantenimendua*

## AROTZAK

**IÑAKI**  
Egurrezko mota guztietako lanak Ateak - Tarimak Altzariak  
Milaflores 10 Tfnoa. 943 20 35 55

**GURIA**  
**ELEKTRIZITATEA**  
Muntaia eta proiektu elektrikoak  
Matsaria 2 7. pabilioia  
Tel. 943 70 08 95  
Fax. 943 82 00 27  
www.electricidadguria.com

## HODI-LIBRATZEAK

**ATAX**  
— Hodi-libratzeak  
— Saneamenduen garbitzea presio handiko makinariarekin  
— Ur ateratzea ufaletan ondoren  
www.desataxcos.com  
LARRIALDIETARAKO (24 ordutan): 673 304 222

**SUKALDE ALTZARIAK  
\*  
AROTZEGIA**  
Iparragirre Anaiaik  
F. Calbetón, 4 behea Tel. 943 20 29 27  
Tailerra: Apalategi auzoa Tel. 943 12 01 92  
Mobila: 657 79 56 78

**ulmar  
S.L.**  
aluminiozko eta PVC-ko arotzgia  
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar  
Txonta, 30 - 1. eta behea  
Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50  
**ERAKUSKETA  
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)**

# Informazio gehiagorako



943 20 67 76



## IGELTSEROAK

IGELTSERITZA



**CAMILO ALVAREZ** OROKORREAN

- Barne erreformak (sukaldeak, bainugelak, leihoak etb.)
- Gremioen koordinaketa

Jardiñeta, 25 - behea  
620 060 104 (Ernesto)  
600 465 789 (Fran)



**irazabal**  
JOSE MARIA IRAZABAL, S.L.

ERAIKUNTZA ETA ERREFORMAK  
IGELTSERITZA ETA  
GREMIOEN KOORDINAKETA

azitain industrialdea, 3 H Pabilioia  
Tfnoa. 943-120108  
[www.irazabal.net](http://www.irazabal.net)



Gasa  
Kalefakzioa  
Klimatizazioa  
Eguzki Energia

**Fontanería Jardines**

Tel. 943 206 913  
615 782 638  
615 782 637  
Fax. 943 254 929

Jardiñeta, 11 B  
[fontaneriajardines@euskalnet.net](mailto:fontaneriajardines@euskalnet.net)

## ITURGINTZA



**MUGICA**  
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,  
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,  
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN  
ERREFORMAK ETA ABAR...  
**HANSGRÖHE** KANILEN BANATZAILEA  
ZORU ERRADIATZAILEA  
EGUZKI-ENERGIA

Egigurentarren, 18  
Tel. 943 20 10 30 - Faxe. 943 20 72 24

## KRISTALAK



**ACHA Kristaldegia**

ERREKATXU, 3an  
**KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK**  
[c.acha@euskaltel.net](mailto:c.acha@euskaltel.net)  
eta faxe: 943 20 39 03

## PINTURAK



Pintura orokorra  
Margotutako paperak  
Zoruen kolokazioa  
PVC zoruak  
Maketak  
Alfonbrak  
Kortinak  
Etxerakoak  
Osagarriak

Tfnoa. eta Faxe.  
943 20 05 94  
T. Etxebarria, 8 - behea



**PINTURAS ARRATE, S.L.**

- Nexa Autocolor
- Pintura industrialia
- 3M produktuen banatzailea

MATSARIA, 34 behea - A  
[parrate@terra.es](mailto:parrate@terra.es)  
Tel. 943 20 41 04 Faxe: 943 70 06 89



**MALVAR PINTURAS**

Sostoa, 16 ac behea  
Tfnoa. eta Faxe. 943 700 900  
Mobila. 656 784 396



**VICTOR GONZALEZ FRAIZ**  
PINTURA OROKORREAN

BARNE eta KANPOko  
dekorazioa eta pintura,  
FATXADAK, PINTURA BEREZIAK,  
ENPAPELATUAK, GOTELÉ...

Bizkaia Etorbidea, 9 -ERMUA-  
696-565394 / 943-030540  
[victor-fraiz@hotmail.com](mailto:victor-fraiz@hotmail.com)

# Toribio eta Lexikoia aurtengo Euskeriaren Eguneko ardatz

*Martitzenian presentau eben prentsaurrekuan abenduaren 3an ospatuko dan Euskeriaren Egunerako preparautako programia Esther Kareaga Euskara-Kultura ziñegotzixak, Carmen Larrañaga Ego-Ibarra batzordeburuak, Junkal Txurruka Euskara teknikarixak eta Igone Lamarain ... eta kitto! Euskara Elkarteko presidentiak. Aurten Toribio Etxebarria eta bere lana izango dira Euskeriaren Eguneko ardatz nagusixa eta, jakiña, horrek islada zuzena dauka preparau dittuen ekitaldixetan. Abenduaren 3an goizeko 09.00etan hasi eta 19.00ak arte udaletxeko pleno aretoan Lexikoia-ren jendaurreko irakorketia egingo dabe herriko erakunde eta alkartietako ordezkariak. Hori izango da eguneko ekitaldi nagusixa, baiña ez bakarra. Egingo diran guztiekin Eibarrek eta gure euskalkixak horrenbeste zor detsen Toribio Etxebarria guretako ezagunagua izatia billatzen dabe antolatzailliak.*



Martitzenian presentau eben Euskeriaren Eguna. SILBIA HERNANDEZ

**T**oribio Etxebarria gure herriko kale inportantienetako baten izena baiño askoz be gehixago da, baiña horrekin be ez dau zorte haundirik euki Toribiok, jende morduak oindiok be lehengo izena, Dos de Mayo erabiltzen dabelako berari eskindu jakon kaliari deitzeko. Sari batzueri be emoten detse izena Toribiok. Baiña hortik aurrera, ei-

bartar askok ez leuke gauza haundirik esango Toribio Etxebarria zein izan zan galdetu ezkerero. Hortik bera jaixo zala 125 urte bete dirala aprobe txauta bere lana eta obria eza gutzera emoteko ahalegiña.


Euskeriaren Egunaren harita hainbat jarduera diferente egin dira gurian azken urtitan: 2009xan Juan San Martinen "Zirikadak" eta "Eztenka-

dak" lanak irakorri ziran udaletxian, 2010ian herrixak Kantu Kantari emon eban eguna, iaz udaletxeko patixua mintzodromo bihurtu zan eta aurten, barriz, Toribio Etxebarriaren Lexikoia irakorriko dabe herriko 65 bat alkarte eta erakundetako ordezkariak pleno aretuan. Presentaziñuan argittu ebenez, "Lexikoia esaten detsagun hori berez 'Flexiones Verbales y Lexicón del euskera dialectal de Eibar' da eta parte bi dakaz, lehelengua 1963an argittara emondakua eta bigarrena 1965ian kaleratutakua. Bixak batzen dittuan lanak, barriz, 1983an ikusi eban argixa. Euskeriaren egunian irakorriko dan partia hiztegiari eskindutakua da. Toribiok euskalkixari eskindutako


hiztegiak 8.000 bat berba jasotzen dittu, danak berak buruz etara eta liburuan batutakuak, Caracasen eguala gogoratzen zittuan espresiñuekin eta aberastutakuak". Irakorretarako berba bakotxaren definiñua barik, berbia erabiltzeko testuingurua azaltzeko Toribiok emondako adibidiak irakorriko dittue.

## Plakia Txirixokalian

Lexikoia irakortzen daben bittartian, egun osuan proieziñua eskinduko dabe udaletxeko pleno aretuan bertan eta hantxe osatuko da baitta euskeriararen hormairudi edo murala, egunian zihar jendiak Toribiori buruz idatzi eta margetutakoekin. Danera 40 metro papel egongo dira prest horre-



Oin dala hiru urte Toribioren Zirikadak eta Eztenkadak irakorri ziran.




## EUGENIA SOLAUN ABIN "Niatxu" (2012-X-19)

**"Goxo, goxo, lo joan zinen, AMA"**

**"Agian, `Haurtxo kanta´ doinuarekin ametsetan joango zinen, AMAMA"**

Agur. Beti arte.



tarako. Eta illuntzixan, jendaurreko irakorketia amaituta, Toribio Etxebarriari buruzko maingurua hasiko da, bere figura eta obria oso ondo ezagutzen daben hiru lagunaren eskutik: Serafin Basauri, Antxon Narbaiza eta Asier Sarasuarekin. Horrekin batera, egun horretan bertan 11.00ak aldera Txirixokalen, Toribio Etxebarria 1887xan jaixo zan etxiaren, 6. zenbakixaren fatxadan, bera gogoratzeko plakia ipiñiko dabe. Izen, abizen jaixotza eta heriotza datekin batera, Toribio berak idatzitako esaldixa erakutsiko dau plakiak: "Nere txoko maitea, mendi eder biren artean jarrita".

#### Lehiaketia

Aurreko astian hasi zan, bestalde, Toribio Etxebarria jaixo zala 125. urtemuga betetzen dala aprobetxautu, eibartarren artian Toribioren figura bera zein berak laga zeskuzen lanak ezagutzera emoteko asmuari jarraituta antolatu daben lehiaketia. Edadiaren arabera talde bi bereiziko dittue: 12 urtera bittartekua (Lehen Hezkuntzako ikasliak) eta 12 urtetik gorakua (edade horretatik gorako guztiena). Aurreko barixakuan kaleratu ziran le-

**Txirixo kaleko  
6xan jaixo zan  
Toribio Etxebarria  
eta oinguan hori  
gogoratuko dabe.  
Plakia abenduaren  
3an, 11.00etan,  
ipiñiko dabe.  
SILBIA HERNANDEZ**



helengo galderak ...eta kitto! aldizkarixan eta bigarren galdera-sortia gaurko alian, hau da, esku artian dakazuen aldizkarixan topauko dozue 9. orrialdian. Eta hurrengo aste bixetan be Toribio Etxebarriarekin lotutako galderak kaleratuko dittugu rebistan. Hortik aparte, galderak eskuratzeko beste bide batzuk be badaoz: Udalaren web orrixan ([www.eibar.net](http://www.eibar.net)), [www.eibarko-euskara.com](http://www.eibarko-euskara.com) helbidian eta

Juan San Martin liburutegiko blog bixetan ([liburutegiak.blog.euskadi.net/eibar/](http://liburutegiak.blog.euskadi.net/eibar/) eta [liburutegiak.blog.euskadi.net/eibarkoumeak/](http://liburutegiak.blog.euskadi.net/eibarkoumeak/)) topauko dittuzue. Galderak barixakuetan kaleratu eta hurrengo eguenera arte egongo da erantzuteko aukeria. Galderak eskuratzeko bide diferentia egonda be, baiña, lehiaketan parte hartzeko derrigorrian Juan San Martin liburutegira jua biharako da, han lehiaketako galde-

## 125 urte bete dira aurten Toribio Etxebarria jaixo zala

tegixak jasotzeko kutxatxua apropos ipiñi dabe-eta. Kutxa barruan sartu biharreko txartela be han topauko dozue (aldizkarixan kaleratutakuaren itxura berbera euki arren, kutxa sartu biharreko papela liburutegixan eskuragarri ipiñi dabena da, eta ez aldizkaritik moztutakua). Gaiñera, liburutegira juatia oso lagungarria izan leike galdereri erantzuna emoteko orduan. Izan be, lehiaketia martxan ipintziarekin batera, liburutegixan Toribiori buruzko interesgunia preparau dabe, berari eta bere obriari buruzko informaziño eta materixalakin.


Aste baktzeko saritu bi (ume bat eta heldu bat) aukeratuko dittue galderak ondo erantzun dittuenean artian zozketia eginda eta irabazlieri sarixa banatzeko ekitaldixa abenduaren 3an, Euskeriaren Nazioarteko Egunian egingo dabe udaletxeko pleno aretuan, 19.00ak aldera. Irabazliendako sarixak kultura bonuak eta publikaziñuak izango dira.

## La Rioja Alta S.A.-rekin MARIDAJE AFARIA

**Azaroaren 22an  
21.30etan  
Chalcha Jatetxean  
Prezioa: 50 € + BEZA**

**EMAN IZENA  
Chalchako barran  
943 20 11 26  
[info@restaurantechalcha.com](mailto:info@restaurantechalcha.com)**

Chalcha-nea



#### MENUA

Aperitiboa: Atunaren bentreska piper erreekin

Guillardeau ostra cava kremarekin eta eta lemon gras aromarekin (ARDOA: ALBARIÑO LAGAR DE CERVERA 2011)

Bakailaoa txingarretan, oliba olio krema eta morroien zukua (ARDOA: ARDANZA 2004)

Vendee pitxioia, bere krema ezka erara eta pure trufatua (ARDOA: FINCA EL OTERO 2009)

Txokolate eta intxaurren tarta txokolate izozkiarekin (ARDOA: 904)

Pikatzeko: Te-pastak

Armenteira uxualak eta likoreak

**ENOLOGOA:**

Francisco Rodriguez

**CHEF:**

Joseba Bergara





**FRAN LASUEN** musikaria

## "Munduari so egiteko modua eskainiko dugu"

Urteak dira Fran Lasuenek ez duela bere lanik eskaini gurean. Eibartarrak Jose Luis Canal bilbotarra izango du lagun oraingoan, azken honen pianoak Lasuenen ahots eta biolinaren osagarri lanak egiten dituen emankizunean. Saioa gaur arratsaldean eskainiko dute Coliseoan, 20.30etan hasiko den egitarauan. Eibartarra ez da geldirik egon azken urteotan eta Hika antzerki taldearen "Hitzak" lanaren musika egiteaz aparte, gaur egun Jose Zugasti Eibarko eskultorearen ikus-entzunezkoa prestatzen dihardu.

### - Zein eratako lana eskainiko duzue Coliseoan?

Formatu berezia izango du. Bi musikari izango gara eszenatokian: bata pianoarekin eta besteak ahotsa eta bibolina landuko dituen. Ikuskizun soila eta klasikoenetzat hartuta ere, errepertorio berriarekin gatzoz. Ordu bete eta laurden iraungo du, gutxi gorabehera; hala ere, gure errepertorioa zabalagoa da eta ikuslearen arabera moldatuko dugu. Pieza instrumental gehienak euskarazkoak izanda ere, badira gazteleraz, frantsez, portugesez... eskainiko ditugunak.

### - Ezagutzen zaituztenek ezustekorik jasoko dute? Aldaketarik?

Azken aldiz Eibarren 2006an joko nuen eta, aldatu baino gehiago, esango nuke adinarekin gauzak argiago dituela batek: bere estiloa, azken finean. Jendea eszenatokian ikusten zaituenarekin geratzen da, baina konposagileak estudioa behar du bere lanean jarraitzeko. Eszenatokiak berriro deitzen dion arte, jakina.

### - Jose Luis Canal lagun berria duzu?

Urteak egin ditugu elkarrekin antzerki produkzioan, elkarren arteko proiekturik tartean izan ez arren. Nahiko ezagutzen gara eta egunerokoari so egiteko antzerako modua dugu.

### - "Gauzak" izenburuak ez ditu 'gauzak' oso airean lagatzen?

Gauzak hori dira soil-soilik, gauzak: itxaropenak, bizipenak. Gai instrumental hutsekin, kantuetako testuak egunerokotasunean dute oinarri: kekak, esperientziak... mundua begiratzeko beste modu bat.


### - Zer iritzi duzu gaur egun kulturak bizi duen egoerari buruz?

Gure arloan krisia eguneroko jakia dugu. Horregatik, beharrezkoa dugu kreatibitatea eta kontsumoa desberdintzea. Gobernatzen gaituztenek, Madrilgoek bereziki, ez dute kulturari sinesten: ez dute kontsideratzen ere. Sortzaileak badaude; kontsumoa bideratzeko baldintzak dira aldatu beharrekoak.



## Su Txikian antzezlanaren bost funtzio

Azaroaren 21ean, 22an, 23an, 24an eta 25ean 20.30etan taularatu du Glu Glu Producciones taldeak Coliseoan (21ean Kultur) "Su Txikian- A Fuego lento" antzezlan, euskeraz eguazten, eguen eta domekan eta gazteleraz beste egunetan. Sarrerak 15 euro balioko du. Galder Pérezek zuzendutako lanak 2001ean Arnaldo Otegik eta Jesús Eigurenek Txillarre baserrian hasitako elkarrizketa sekretuak eta haien ostekoak eramango ditu taula gainera.



## Banatu dituzte Javier Agirresarobe Sariak

Zapatuan banatu zituzten XIII. Asier Errasti laburmetraia lehiaketako Javier Agirresarobe sariak: lehenengoa Martin Rosete-ren "Voice Over" laburmetraiak eraman du, bigarrena Felipe Vara de Rey-ren "Q" laburmetraiak, animazioan Ander Mendiaren "Beerbug" eta euskerazko lanen artean onena Telmo Esnalen "Hamaketakoa". Plano Corto elkarteak antolatutako lehiaketara 256 lan aurkeztu dira aurretik.

## Bakailaoaren Eskolarteko IX. Lehiaketa

Eibarko Bakillauaren Kofradixiak antolatuta, domekan 11.00etatik aurrera jokatu da Eskolarteko IX. Lehiaketa Untzagan. 12 eta 16 urte bitarteko 32 bikotek eman dute izena lehiaketan parte hartzeko eta atzo hartu zuten antolatzaileen eskutik lehiaketan prestatuko duten bakailaoa.






## Eñaut Uruburuk irabazi du bertso-paper lehiaketa

...eta kitto! Euskara Elkarte-ko bertso-taldeko epaimahaiak eman ditu ezagutzera aurtengo San Andres bertso-paper lehiaketako irabazleak. 16 urtetik gorako mailan 13 lan jaso dira guztira eta lehenengo bi sariak Eibartik kanpora joan dira. Irabazlea, bigarren urtez, Abadiñoko Eñaut Uruburu izan da (300 euro eta txapela) eta bigarrena, berriz, Irungo Manu Goigana (250 euro eta plaka). 16 urtetik beherako artean 63 lan jaso dira. Irabazlea Juan Antonio Mogel ikastetxeko Ju-

ne Eguren izan da (txapela eta liburua) eta bigarrena, ikastetxe bereko Iker Arginzoniz (plaka eta liburua). Irabazleek azaroaren 25ean Portaleko areto nagusian egingo den San Andres Bertso Jaialdian jasoko dituzte sariak, arratsaldeko 18.30-etan. Sari banaketa amaitu eta gero hasiko den jaialdiak badu aurten berritasunik: bertso-saio musikatua izango da. Arkaitz Estiballes, Beñat Gaztelumendi, Uxue Alberdi eta Alaia Martinek jardungo dute bertso-tan Ixak Arruti (gitarra) eta



Abadiñotarrak iaz ere irabazi zuten lehiaketa. LEIRE ITURBE

Eneko Sierrak (saxoa) lagunduta. Gai-jartzaile lanetan Iker Iriartek jardungo du. Sarrerak salgai daude 5 eurotan Sagar-Bitza, Kultu eta Depor tabernetan.

## Azaro gastronomikoa Kultun

Datorren astean, azaroaren 22an eta 23an ospatuko da Arrate Kultur Elkarteak antolatzen



30 tabernek eman dute izena IX. Pintxo Lehiaketarako. LEIRE ITURBE

duen Tabernarien arteko IX. Pintxo Lehiaketa. Lehiaketarako izena eman duten tabernak hauek dira: Bossa, Karrika, Ceba, Koskor, Depor, Kultu, Foxtter, La Terraza, Iruki, Maixa, Matarife, Su beroa, Nuevo, Trinkete, Oishi, Txoko, Paulaner, Zazpi, Slow, Zubi Gain, Arkupe, Agiñaspi, Aterpe, Akara, Azkena, Ambigú, Batzokia, Amesti, Birjiñape eta Anardi. Bakoitzak aipatutako egunetan pintxo berezi bat ipiniko du salgai eta epaimahiko kideek zein bezeroek pintxo onenak aukeratu dituzte. Horrez gain, azaroaren 20rako txokolateari buruzko hitzaldi-dastaketa eskainiko du Anton Azpiatzuk Arrate Kultur Elkarteke gela handian.

## Musikariak Santa Zeziliarekin


Urteroko moduan, herriko musikariek Santa Zezilia euren babeslearen omenezko emanaldi bereziak eskainiko dituzte. Zapatu gauerdian Cielito Musika Bandakoek serenata emango dute, herriko kaleetan kalejira eginda. Eta domekan, 10.00etatik aurrera Usartza Txistulari Bandakoak kalejira ibiliko dira. Cielitok, berriz, 12.30etan kontzertua emango du Coliseoan.




Urtero moduan, kalejira egingo dute bihar gauean. LEIRE ITURBE

## Aire zabaleko pintura

Domekan egingo da XXXV. Aire Zabaleko Pintura Lehiaketa, Eibarko Artisten Elkartearen eskutik. Parte hartu nahi dutenek Portalera jo behar dute, 09.00etatik 11.00etara eta bertan gai libreko koadroak margotzeko mihiseak eta papalak zigilatuko dizkiete. 14.00ak arteko tarte izango dute lana amaitu eta entregatzeko. Epaimahiko kideek egunetan bertan emango dute ezagutzera zeintzuk diren irabazleak, 18.00etan.



## laburrak



### KLARINETISTEN DEBUTA

Domekan Cielito Musika Bandak emango duen Santa Zezilia kontzertuan Ainhoa Urkizu klarinetistak bakarlarri modura jardungo du "Viktor's Tale" obran eta, horrez gain, beste klarinetista berri biren, Aitor Bastidaren eta Andoni Camposen aurkezpena egingo dute.



### 1962-KOEN LOTERIA

Urte horretan jaiotakoak urriaren 20an batu ziren euren jai ospatzeko eta antolatzaileek parte hartu zuten guztientzat Gabonetako loteria erosi dute: bakoitzak 6 euro jokatu dituzte 71.134 zenbakiarekin.



## Elena Suárezi omenaldia

**Irailen hil zen Elena Suárez omentzeko** ekitaldia antolatuta dute berarekin batera 70eko hamarkadan Grupo Arrate de Teatro taldearen sorreran parte hartu zuten Ernesto Barrutiak eta Blanqui Martínezek. Horretarako, omenduko duten lagunari asko gustatzen zitzaizkion autore bi, Mario Benedetti eta Federico García Lorca aukeratu dituzte eta hilaren 23an, 22.00etatik aurrera, euren hainbat testu irakurriko dituzte, Maite Arroitauregik txeloarekin lagunduta. Ekitaldia aktore modura euren lehenengo pausoak eman zituzten tokian, Arrate Kultur Elkartearen izango da, musutruk.

## Kaleetan Kantuz... Istanbulen

**Eguaztenez abiatu ziren** Kaleetan Kantuz-ekoak Turkiara, Istanbulen egunotan ospatzeko den V. Nazioarteko Abesbatza Jaialdian abesteko. Astelehenera arte han izango dira Eibartik joandako

40 bat lagun, jaialdirako ensaiztzen, jaialdian abesten eta bide batez turismo piskat egiten. Ilusio handiarekin joan eta bueltan euren esperientzia kontatzekotan geratu dira.



## Liburutegian hizkuntzak ikasteko aukera

**Euskadiko liburutegi publikoek, tolerantzia eta kultur integrazioa sustatzeko** Liburutegiak Topaleku ipini dute abian. Juan San Martín Liburutegitik azaldu digutenez, *"baliabideak, materialak eta informazioa, Liburutegiak eta Kulturantzatasuna taldeak lantzen ditu, Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Zerbitzuak koordinatuta eta gu talde horretako partaide garenez, Hernaniko Liburutegiarekin batera gida bat prestatu dugu, 'Gure hizkuntzak ikasteko aukera... Liburutegian' izenburupean".*

Helburua atzerritarrei gure hizkuntzak ikasteko beste aukera bat gehiago eskaintzea da eta gida bost ataletan sailkatu dute: hiztegiak, el-karrizketarako gidak, gure hizkuntzak ikasteko metodoak, irakurgai mailakatuak eta haur eta gazteentzako metodoak. Gidak zein liburutegiak eskaintako zerbitzuak ezagutzera emateko, bisita gidatuak antolatuko dituzte. Parte hartu nahi dutenek biblioteca@eibar.net helbidera



mezua bidali, 943 70 84 37 telefono zenbakira deitu edo <http://www.bibliotecaspublicas.es/eibar/visitas.htm> helbidean inprimakia bete dezakete.

2009az geroztik, Kutxatik hizkuntzak ikasteko materiala erosteko diru-laguntza jasotzen hasi zirenetik, horrelako materialen maileguak etengabe gora egin duela diote: *"2009an beste hizkuntza batzuetako materialen mailegua % 7koa izan zen eta iaz batzuetako ia %10era igo zen".*

## Sanandresetarako egitaraua aurkeztu dute

**San Andres jaien inguruan antolatutako** egitarauaren berri eman zuten martitzenean Esther Kareaga Euskara-Kultura zinegotziak, Miguel de

los Toyos alkateak eta Jose Luis González "Poxpolo" kultura teknikariak. Azaroan zehar gastronomiarekin lotutako ekitaldiak nagusi izango dira eta alkateak egitarauaren antolaketan parte hartzen duten herriko taldeei euren laguntzarengatik eskerrak emateko aprobetxatu zuen agerraldia. Bestalde, aurten azoka Txaltxa Zelaiaren beheko aldean eta Untzagako plaza bietan ipiniko dela aurreratu dute eta bertan 72 postu izango dira. Abereen erakusketa, berriz, Ego-Gainen, autobus geltokiaren aldamenean ipiniko da. Aurrekontua 34.000 euro ingurukoa izan da, *"iaz baino 4.000-5.000 bat euro gutxiagokoa".*




## Kultukoeren txangoa Oiassora


**Urriaren 27an Arrate Kultur Elkarteak** txangoa egin zuen Oiassora (Irun). Argazkian ikusten duzun taldeak erro-matar museoa eta Xantalen ermita bisitatu zituen eta irteeran parte hartu zutenen berbetan, *"giro onean eman genuen eguna".*

# laztanak emoten...


Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, IRUNE, gaur sei urte betetzen dozuz-eta. Etxekuen eta, batez be, Jokin lehengusuaren partez.




Zorionak, ALEJANDRO, hillaren 20xan bi urte egingo dozuz-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, AIZEA Barrutia Zabala, 13an bi urte egin zenduaz-eta. Etxekuen eta, batez be, Maialen zure ahiztiaren partez.




Zorionak, ANGELA, domekan lau urte egingo dozuzelako. Gure printzesarentzat, aitta-ama eta Anderren partez.




Zorionak, EKHI, aurreko astelehenian bi urte egin zenduaz-eta. Patxo haundixa guraso, famelixa eta, batez be, Maddiren partez.




Zorionak, MALEN, gure printzesak hamar urte bete diitu-eta. Muxu haundi bat amatxo, aitatxo eta Asierren partez.




Zorionak, NAGORE Arakistain Mendizabal, gaur sei urte betetzen dozuz-eta. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, ANNEKE, zapatuan bost urte bete zenduaz-eta. Aitatxo, amatxo eta danon partez.




Zorionak, ANDER, atzo hiru urte bete zenduaz-eta. Jarraitu holan. Etxekuen partez.




Ongi etorri, PAULE Gesalaga Aranberri, hillaren 13an gure artera etorri zifalako. Famelixakuen partez.




Zorionak, VICTORIA, astelehenian bederatzia egin zenduaz-eta. Muxu haundi bat etxeko guztien partez.




Zorionak, LUAR, astelehenian lau urte egingo dozuzelako. Aitxitxa eta amamaren partez.



Zorionak, IRATI eta ITXASO, martitzenian zortzi urte egin zenduaz-eta. Gaur ospatuko dogu lagunekin. Patxo mordua famelixen partez.



Zorionak, ISABEL, bixar urtiak egingo dozuzelako eta baita aurten birramona titulua lortu dozulako. Patxo haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, MADDI eta IRATI!!! Zortzi eta hamar urte bete dozuez-eta. Segi hain jator eta alai, neskak. Muxu mordua bixontzat!



Zorionak, ANA Mari eta CARLOS, hillabete honetan urtiak egiten dozuzelako. Etxekuen partez.



## zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

16an: 22.30

17an: 17.00, 19.45, 22.30

18an: 17.00, 20.00

19an: 20.30

"Salvajes"

Zuzendaria: Oliver Stone

(2 ARETOAN)

16an: 22.30

17an: 17.00, 19.45, 22.30

18an: 17.00, 20.00

19an: 20.30

"A Roma con amor"

Zuzendaria: Woody Allen

(ANTZOKIAN)

16an: 22.30

17an: 19.45, 22.30

18an: 20.00

19an: 20.30

"Saga Crepúsculo"

Zuzendaria: Bill Condon



(ANTZOKIAN)

17an: 17.00

18an: 17.00

"Campanilla"

Zuzendaria: Peggy Holmes



## BARIXAKUA 16

### KONTZERTUA

**20.30.** Fran Lasuen eta José Luis Canal: "Gauzak". Sarrera: 5 euro. Coliseoan.

### MARIDAJEA

**21.00.** Krabelin hoteleko maridaje-afarirako autobusaren irteera (afaria 21.30etan). Ego-Gainetik.

### KONTZERTUA

**00.00.** Rithm&Blues kontzertua: Behi Bi Blues. Karrika tabernan.

## ZAPATUA 17

### AZOKA DEBALDE

**12.00.** Azoka debalde. Urkizuko parkean (euria bada, Azpiriko etxean azpiko, autobus geltoki pareko arkupeetan).

### 1944-AN JAIOTAKOAK

**13.00.** 1944an jaiotakoen bazkaria. Arkupe tabernan batu, piskolabisa eta zapi bana hartu eta jarraian Untzagan talde-argazkia. Bazkaria Unzaga Plaza hotelean (15.00etan).

### KONTZERTUA

**23.00.** Turboshit taldea. Ez Dok Tabernan.

### MOJITO GAUA

**23.00.** Karrikaren II. urteurrena ospatzeko. Karrika tabernan.

### SANTA ZEZILIA

**00.00.** Santa Zezilia Serenata, Cielito Musika Bandaren eskutik.

## DOMEKA 18

### SANTA ZEZILIA

**10.00.** Usartza Txistulari Bandaren kalejira.

**12.30.** Cielito Musika Bandaren Santa Zezilia kontzertua. Zuzendaria: Carlos Sánchez-Barba. Coliseoan.

### PINTURA LEHIAKETA

**11.00.** XXXV. Aire Zabaleko Pintura Lehiaketa (izen-ematea Portalean, 09.00etatik 11.00etara).

### BAKAILAO LEHIAKETA

**11.00.** Eskolarteko IX. Bakailao Lehiaketa. Untzagan.

### KONTZERTUA

**19.00.** Kontzertua: Old Kerry McKee. Karrika tabernan.

## ASTELEHENA 19

### BAKETIK

**18.30.** Elkarbizitarako ikuspegia izateko ikastaroaren 2. saioa: "Gatazka". Portalean.

### GIPUZKOA BERRIA

**19.00.** Foru Aldundiko ordezkariekin bilera. Gaiak: 2012ko balantzea eta 2013rako aurrekontuak. Portalean.

## MARTITZENA 20

### IKASTEN

**10.00.** "Arkitektura modernoa", Cristina Ayusoren eskutik. Armeria Eskolan.

### HITZALDIA-DASTAKETA

**19.00.** Txokolateari buruzko hitzaldi-dastaketa, Anton Azpiauren eskutik. Arrate Kultur Elkartean.

### HITZALDIA

**20.00.** "Las drogas en la sociedad actual", Fernando Urizar Barandiaran psikiatraren eskutik. Eibarko Medikuntza Zentruak antolatuta. Portalean.

## EGUAZTENA 21

### IKASTEN

**10.13.-** Elorrio-Matienako nekropolisera trenaren irteera Estaziñotik (Ardantzatik 10.15etan).

### JAIALDIA

**19.00.** Beldur Barik jardunaldia. Hitzaldia: "Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako arreta eta babesa. Aurrerapenak eta erronkak diziplinarteko ikuspuntutik". Hizlaria: Mariola Serrano (genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko zuzendaria). Beldur Barik lehiaketara aurkeztutako bideoak ikustea eta Eibar mailako saria banatzea. Portalean.

## KALEJIRA

**17.30.-** Musika Eskolako ikasleen kalejira. Portaleatik Untzagako arkupeetaraino.

### ANTZERKIA

**20.30.** "Su Txikian" (Glu Glu Producciones). Sarrera: 15 euro. Arrate Kultur Elkartean.

## EGUENA 22

### IKASTEN

**10.00.** "Umorea literaturan", Jose Domingoren eskutik. Armeria Eskolan.

### EGO IBAR ZINE-KLUBA

**17.30/21.00.** "Amor bajo el espinoso blanco" (Zuz: Zhang Yimou). Sarrera: Euro bi. Hezkuntza Esparruan.

### GURASOAK MARTXAN

**18.30.** Heztko estrategiak, gurasoentzat, Baikararen eskutik. Portalean.

### ERAKUSKETA

**19.00.** Tatoo Circus erakusketaren inaugurazioa. Karrika tabernan.

### ANTZERKIA

**20.30.** "Su Txikian" (Glu Glu Producciones). Sarrera: 15 euro. Coliseoan.

## HOROSKOPOA

### ARIES

Zuri gauza bat ez gustatzeak ez du esan nahi ona ez denik. Gusto berezikoa zara eta jendea zurekin ados egotea zaila da.

### TAURUS

Ikasketa kontuak lehenbailehen bideratu beharko dituzu. Kostatzen ari zaizu kursoari neurria hartzen, baina saiatu.

### GEMINI

Beldurra sentituko duzu zapatu gauean; ez ibili bakarrik badaezpada. Ez zaizu ezer txarrik gertatuko: sustoa bakarrik.

### CANCER

Obamarekin pozik? Bizitza konponduko dizu? Astroei egin beharko zenieke kasu gehiago, laguntzeko prest dituzu-eta.

### LEO

Ederra lasaitasuna hartu zurena amak jaio zinenen! Hain urduri ibilita, inguruok ere urduri jartzen dituzu.

### VIRGO

Zapatuan egindakoa ez duzula oroitzen? Pena da, gogoratzeko modukoa izan zena. Gau ederra, ez ahazteko horietakoa.

### LIBRA

Zu bezalako lagunekin, zertarako izan etsaiak? Lagun horren adiskidetasuna berreskuratzea behar duzu... Edonola!

### SCORPIUS

Txapela frantziarrek bezala ipini eta pipa erretzeagatik, ez duzu ondo margotuko. Zure margoek ez baitute arte askorik.

### SAGITTARIUS

Egarria guztiz kentzeko, ura da edari bakarra. Laga bestelako freskagarriak. Ura ez da inoiz modatik pasatzen!

### CAPRICORNIUS


Pare bat lagun hartu eta herriz-herriz ibili beharko zinake jaiak girotuz. Publikoak zure grazia behar du: poltsikoan duzu!

### AQUARIUS

Konturatu zara zein barregarria den zure ahotsa grabatu eta gero entzutea? Ahots horrekin, horrela entzuten dizugu denok.

### PISCIS

Nahiz eta jendea ondo zaudela esan, txarto bazaudete txarto zaudela esan behar duzu. Jendeak lagunduko dizu.



## erakusketak

- ✓ **Azaroaren 18ra arte**  
**INDALEZIO OJANGUREN XXV. ARGAZKI LEHIAKETA.** Saritutako lanak. *Portalean.*
- ✓ **Azaroaren 25era arte**  
**ESTHER ORTIZ DE PINEDO.** Margo erakusketa. *Topalekuan.*
- ✓ **Azaroaren 30era arte**  
**PEDRO ARRIOLA.** Vietnam eta Kanbodiako argazkiak. *El Ambigú tabernan.*  
**IÑAKI ARANGUIZ.** Argazkiak. *Portalea tabernan.*

## lehiaketak

- ✓ **Toribio Etxebarriari buruzko galderak.**  
**Azaroaren 9an, 16an eta 23an.** Informazioa eta galdetegiak entregatzea: **Juan San Martin Liburutegian.**
- ✓ **XXXV. Aire Zabaleko Pintura Lehiaketa**  
**Azaroaren 18an,** 11.00etatik aurrera Portalean hasita.
- ✓ **Tabernarien arteko IX. Pintxo Lehiaketa**  
**Azaroaren 22an eta 23an,** izena eman duten tabernetan.

## hildakoak

- M<sup>a</sup> Asuncion Zabaleta Azkarraga. 85 urte. 2012-XI-8.
- Amaia Egaña Txopitea. 53 urte. 2012-XI-9.
- M<sup>a</sup> Asuncion Loitxate Mugerza. 97 urte. 2012-XI-10.
- Juan Vallejo Santamaria. 91 urte. 2012-XI-11.
- Nerea López Peral. 89 urte. 2012-XI-12.
- Jon Barandika Goiti. 54 urte. 2012-XI-13.

## farmaziak

- ✓ **barixakua 16**  
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)  
GAUEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- ✓ **zapatua 17**  
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)  
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
- ✓ **domeka 18**  
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)  
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- ✓ **astelehena 19**  
EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)  
GAUEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)
- ✓ **martitzena 20**  
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)  
GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- ✓ **eguztena 21**  
EGUNEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)  
GAUEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)
- ✓ **eguna 22**  
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)  
GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- ✓ **barixakua 23**  
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)  
GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)

## jaiotakoak

- Beñat Hernández Pérez. 2012-XI-5.
- Miren De Andres Errasti. 2012-XI-8.
- Mario Atxiaga Villaverde. 2012-XI-11.

## telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea.....943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea 943 70 07 99
- Debegesa .....943 82 01 10
- KIUB .....943 20 38 43
- Epaitegia .....943 03 34 00
- Iberdrola .....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak ..943 46 46 22
- Gurutze Gorria...943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia .....943 03 25 00
- Torrekoa .....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza .....943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Pesa.....902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
- .....943 20 13 25
- Alkohol.Anon. ....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen ..650 26 59 63

## autobus ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.50etara ordu erdiero eta 09.50etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.50etara ordu, 15.00, 15.50etatik 18.50etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.50etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

**EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiero. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiero.

**EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

**EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

**EIBAR-ARRATE.** Egutegia: 15.00. Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00.

**EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 16.40 eta 20.40.

**EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiero. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiero eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

## tren ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Egutegia: 08.13etatik 22.15etara ordu, 10.35 eta 21.35. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.15. **DONOSTIA-EIBAR.** Egutegia: 07.47etatik 20.47etara ordu. 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

**EIBAR-BILBO.** Egutegia: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egutegia: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

6			4	3			
		8		7			
		7			3	9	
	5		2				
8	1					6	2
			1			5	
	3	2			8		
			6		1		
			3	9			7

## SUDOKUA

2	4	8	8	7	5	3	9	1
5	3	8	4	1	8	7	2	6
7	9	1	3	2	6	5	8	4
4	6	9	7	8	2	1	5	3
3	1	5	6	9	4	8	7	2
8	2	7	1	5	3	4	6	9
1	8	3	2	6	7	9	4	5
9	7	2	5	4	1	6	3	8
6	5	4	9	3	8	2	1	7

AURREKOAREN EMAITZA

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

- Babes ofizialeko pisua salgai Amanan. 70 m<sup>2</sup>. Garajea eta trasteroarekin. Tel. 636-458967 eta 650-497992. Ricardo.
- Pisua salgai Jardinetan. 2007ko eraikuntza. 2 logela, egongela, sukalde, komuna eta trasteroa. Garajearekin. Tel. 677-088320.
- Pisua salgai J.A. Mogelen. 76 m<sup>2</sup>. 75.000 euro negoziagarriak + auzo errehabilitazio gastuak (zati bat subentzionatuta). Tel. 645-008496.
- Pisua salgai Eibar erdialdean (Eibarko Txikito). 2 logela, egongela, sukaldeta eta komuna. Igogailua. 149.000 euro. Tel. 672-622774.

### 1.2. Errentan

- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibar erdigunean edo Urkizu aldean. Tel. 602-490595.
- Pisua behar dut alokairuan Elgoibarren. Tel. 608-474923.
- Pisua alokagai Eibarko erdialdean. 2 logela, sukalde-egongela eta komuna. Kalefakzioa. Jantzita. Tel. 659-757572.

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

- Lokala salgai Eibarko erdialdean. 22 m<sup>2</sup>. Prezioa adosteko. Tel. 671-258740.
- Aparkatzeko plaza salgai Txomon. Tel. 658-710898.

### 3.2. Errentan

- Garaje itxia alokagai Asua-Errekan. Sarbide erraza. Tel. 670-793312.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

- Gizona eskaintzen da edozein lanetarako: garbiketak, eraikuntza... Tel. 660-213652.
- Emakumezkoa eskaintzen da erro-pa konponketak egiteko. Tel. 688-841146.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 605-129530.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketak egiteko eta sukaldari-laguntzaile moduan. Tel. 605-720298.
- Emakume euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Orduka. Tel. 687-114707.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta dendan jarduteko. Esperientzia eta titulazioa. Tel. 650-870384.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko garbiketak egiteko. Tel. 617-571210.
- Neska euskalduna eskaintzen da ile-apaindegi batean lan egiteko. 11 urteko esperientzia. Tel. 610-096417.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko garbiketak egiteko. Tel. 654-281645.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 649-770161. Conchi.
- Emakumea eskaintzen da plantxan egiteko. Tel. 650-565186.
- Emakumea eskaintzen da sukaldari-laguntzaile eta hoteleko kamarera jarduteko, garbiketak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 608-474923.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 617-844142.
- Emakumea eskaintzen da sukaldari-laguntzaile edo kamarera jarduteko, nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 608-474923.
- Mutila eskaintzen da mediku-bisitari modura, nagusiak zaintzeko eta kamarero jarduteko. Tel. 654-075163.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Erreferentziak. Tel. 638-233739.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko arratsaldean. Erreferentziak. Tel. 686-610074.
- Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 671-258740.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Orduka. Tel. 626-197217.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Tel. 695-347162.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 632-182711.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko asteburuetan. Tel. 699-094626.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko etxean zein ospitalean eta kalera ateratzeko. Tel. 688-812845.

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Tel. 658-456861 eta 606-724484.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Esperientzia. Tel. 692-332871.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Esperientzia. Tel. 943-257815 eta 686-052084.
- Sasoiko mutila eskaintzen da mendi, baso zein baserri inguruak garbitzeko. Tel. 699-690965.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 617-571210.
- Mutila eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko arratsaldean. Tel. 627-052945.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 638-884104.
- Emakumea eskaintzen da sukaldari-laguntzaile edo kamarera jarduteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 608-474923.
- Emakumea eskaintzen da sukaldari-laguntzaile jarduteko, garbiketak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 943-176256.
- Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 631-244331.
- Emakumea eskaintzen da sukaldari-laguntzaile jarduteko, kamarera moduan, garbiketak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 605-720298.

## 5. Irakaskuntza

### 5.2. Eskaintzak

- Euskarazko klaseak ematen ditut. Azterketetarako prestakuntza: EGA, IVAP, HABEren mailak. Baita umeentzat ere. Tel. 620-608065.
- Arlo guztietako klase partikularrak ematen ditut. Tel. 602-873769.
- Alemanierazko klaseak ematen ditut. Metodo erraza eta atsegina. Ikasleentz truke eta azterketen prestaketa. EOI. Tel. 647-275374.
- LH, DBH eta Batxilergoko partikularrak ematen ditut: Matematikak, Ingeles, Euskera, Ekonomia... Talde murrituak. Tel. 685-739709.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

- Mutsy markako silla (100 euro) eta kapazoa (200) salgai. Aukeran, osagarriak (merke). Tel. 669-208763.
- Autorako segurtasun aukila, 1 taldekoa, isofix-arekin salgai (70 euro). Chicco markakoa. Tel. 669-208763.
- Dibal Novaplus markako komertziorako balantza salgai. Tel. 676-753898.

### 6.2. Eman

- 90x200 eta 105x190eko somierrak aldatuko nituzke 1'35eko neurrikoagatik. Tel. 669-627090.

### 6.3. Galdu/Aurkitu

- Pedalik gabeko bizikleta zuria galdu genuen Kulturako parkean. Imaginarium markakoa. Tel. 699-532243.

### OHARRA

**Abenduaren 1etik aurrera IRAKASKUNTZAko ESKAINTZEN arloko iragarkiak 10 euro kobratuko dira (lau astetan kaleratzeko).**

Generik onenean

Calbeton, 6

**11. urteurrena**  
**ESKERRIK ASKO**

AZAROAK  
**23**  
00-00  
GATA  
ETA OPARIAK

**PINTXORIK**



**ONENAK**

# Astero eskaintza harrigarriak!

Mandarina kiloa  
+ Golden sagar kiloa 1,50 €

Eguneko perla  
Eguneko paneka 4,90 € kiloa

Solomo adobatua 6,90 € kiloa  
Untxia 5,20 € kiloa

Beronia kiantza 6,70 €  
Señorio de Villarica kiantza 7,00 €  
Señorio de Villarica urtekoa 3,00 €

Azaroaren 12tik aurrerako eskaintzak

# MERKATU PLAZA

produktu fresko eta kalitatezkoak

HERNAN BULLA

**ZERBITZUA**

**ADMINISTRAZIOA**

**BILERAK**

**GESTIOA**

# **EUKi**

T. Etxebarria, 1 - behea Tel. 943 20 42 99

## **KOMUNITATEAK**

**5 eguneko Teorikako ikastaro trinkoak**

**ORDUTEGIA:**  
09.30-13.00  
15.30-20.30

**ZEZEN BIDE**

**AUTO ESKOLA**

## **GIDA-BAIMENAK**

San Andres, 1 ac  
Tel. 943 20 34 45  
**EIBAR**